

Haur gida didaktikoa



EGILE NAGUSIAK:

Cristina García Inurria. *Entzumen eta Hizkuntzako irakaslea*

Elena Pérez Galiano. *Lehen Hezkuntzako irakaslea*

Leticia Suárez Moreno. *Haur Hezkuntzako irakaslea*

"BIZI EGUZKIAREKIN" LANTALDEA:

Koordinatzaileak:

Yolanda Gilaberte Calzada. *Dermatologoa*

Magdalena de Troya Martín. *Dermatologoa*

Lagunzaileak:

Antonio Gregorio Rodríguez Martínez. *Gorputz Hezkuntzako irakaslea*

Cristina García Inurria. *Entzumen eta Hizkuntzako irakaslea*

Eduardo González Corral. *Gorputz Hezkuntzako irakaslea*

Elena Pérez Galiano. *Lehen Hezkuntzako irakaslea*

Irene Pérez Miralles. *Pedagogoa*

José Aguilera Arjona. *Biologoa*

Leticia Suárez Moreno. *Haur Hezkuntzako irakasleal*

María Pilar Teruel Melero. *Psikopedagogoa*

María Victoria de Gálvez Aranda. *Dermatologoa*


Nuria Blázquez Sánchez. *Dermatologoa*

Pablo Ferradas Pérez. *Erizaina*

Pilar Gómez Frías. *Haur Hezkuntzako irakaslea*

Raquel Noé. *Irakaslea eta psikopedagogoa*

Teresa Fernández Morano. *Dermatologoa*



Aurkibidea

1. SARRERA	3
2. JUSTIFIKAZIOA	5
2.1. Helburu orokorrak	5
2.2. Harremana curriculumarekin	5
3. GIDA NOLA ERABILI.....	8
4. UNITATE DIDAKTIKOAK	10
4.1. "Argitxo"	11
4.2. "Larruazala sentituz"	30
4.3. "Eguzki errainuak"	45
4.4. "Fotobabeserako neurriak"	63
BALIABIDEEN ERANSKINA	79



Sarrera

Eguzkia ezinbesteko da bizitzeko eta, neurrian hartuz gero, oso eragin onuragarriak izan ditzake osasunean. Ezagunena D bitaminaren sintesia da, hezur metabolismoa erregulatu eta gure hezurren eta hortz-haginiaren mineralizazioa eragiten duena. Hala eta guztiz ere, jakina da ere eguzkia neurri gabe hartzeak intsolazioa eragin dezakeela, eta kalteak larruazalari, begiei eta sistema immunologikoari. Eguzkiak larruazalean eragiten dituen kalte nagusiak dira gorritzeak (erredura), orbanak eta zimurdurak (zahartzea), eta batzuetan tumoreak ere sor ditzake (larruazaleko minbizia).

Eguzkia kaltegarria izan daiteke bereziki haurrentzat. Neska-mutikoek ordu asko ematen dituzte egunean eguzkitan, jolasean eta kirola egiten. Larruazal delikatua dute, eta eguzki erredura batek ondorio garrantzitsuak izan ditzake haien bizitzaren geroagoko etapetan, larruazalak "oroimena" duelako.

Txikitatik fotobabeserako jokabideetan heztek modurik onena da eguzkitan denbora gehiegi egoteak dituen arriskuei aurre egiteko, eta osasun arloko profesionalei, gurasoei eta hezitzaillei dagokien erantzukizuna da. Eskolak funtsezko eginkizuna du umeek txikitatik gai honetan jakin beharrekoak barneratu eta ohitura eta jokamolde osasuntsuak har ditzaten.

Beraz, gida honen helburu nagusia da gai honi buruzko argibide onenak eskaintza irakasleei, eta hezkuntza baliabideak ematea, kreatiboak eta kalitatezkoak, ikasgeletan fotobabesaren gaia lantzeko. Gure helbururik behinena hauxe da: ikasleek beren larruazala zaintzeko ohitura eta jarrera arduratsuak har ditzaten lortzea, harreman osasuntsu bat izan dezaten eguzkiarekin.



Justifikazioa

2.1. HELBURU OROKORRAK

Gida didaktiko hau irakasleentzako tresna izateko xedez sortu dugu, alde praktikotik lantzeko osasunerako hezkuntza -zehazki, eguzki esposizioari dagokion guztia-, gai honen inguruan ikasleen interesa piztuz eta ohitura osasuntsuak hartzearen garrantzia nabarmenduz.

Irakaskuntza-ikaskuntza programak lau unitate didaktiko ditu, eta helburu orokor hauek bete nahi dituzte elkarren mendeko diren hiru alorretan:

Ikasleak	Ikasleei eguzki esposizioari buruz jakin beharrekoa azaltzea eta jarrera eta ohitura osasuntsuak har ditzaten lortzea.
Familiak	Familiak eskolako fotobabesaren proiektuan implikatzea, dagokien erantzukizuna har dezaten seme-alabek jokabide osasuntsuak garatzeko orduan.
Ingurunea	Proiektuaren berri ematea inguruko agente kopuru ahalik eta handienari (osasun zentroak, udala...).

2.2. HARREMANA CURRICULUMAREKIN

Abenduaren 29ko 1630/2006 ERREGE DEKRETUAren arabera (Haur Hezkuntzako bigarren zikloko gutxieneko irakaskuntzak finkatzen dituena), etapa honek ezaugarri batzuk ditu berez, eta helburu, xede eta printzipio orokor batzuk ezartzen zaizkio horrenbestez, gida honen oinarri direnak.

Etapako helburu orokoren, artean, bereziki aipatzekoak dira honako hauek, fotobabesaren gaiarekin duten zerikusiagatik:

- Nork bere gorputza eta besteena ezagutzea, ekintzarako ematen dituen aukerak, eta desberdintasunak errespetatzen ikastea.
- Ingurunea behatzea eta aztertzea: familia, natura eta gizartea.

c) Gero eta autonomia handiagoz aritza norberaren ohiko jardueretan.

Nolanahi ere, proposatzen diren jarduerei esker, beste gaitasun batzuk ere lantzen dira, etapako gainerako helburuak betetzen lagunduko dutenak:

- d) Gaitasun afektiboak garatzea.
- e) Besteekin harremanak izatea, bizikidetzarako eta gizarte harremanetarako oinarrizko arauak pixkanaka barneratzea, eta gatazkak era baketsuan konpontzeko ahaleginean trebatzea.
- f) Komunikazio trebetasunak garatzea, hainbat hizkuntza eta adierazpidetan.
- g) Lehen urratsak egitea trebetasun logiko-matematikoetan, irakurketa-idazketan, eta mugimenduan, keinuan eta erritmoan.

Etapa honetan, beste edozein etapatan baino gehiago, garapena eta ikaskuntza prozesu dinamikoak dira, **ingurunearekiko interakziotik** sortzen direnak. Haur bakoitzak bere eritmoa du, heltzeko, garatzeko eta ikasteko modua, eta horregatik, haren afektibilitateak, ezaugarri pertsonalek, beharrek, interesek eta estilo kognitiboak etapa honetako hezkuntza praktika baldintzatzen dute. Prozesu horretan, garrantzi berezia du **familien laguntzak, haiekin batera aritzeak**.

Bestetik, metodologiaren oinarrian ipini behar dira **esperientziak, jarduerak** eta **jolasak**, eta konfiantza eta afektu giro batean aplikatu behar da, autoestimua eta gizarte integrazioa indartzeko.

Jakina denez, honako hauek dira Haur Hezkuntzako bigarren zikloko **arloak**:

- **Nork bere burua ezagutzea eta autonomia pertsonala**
- **Ingurunea ezagutzea**
- **Hizkuntzak: komunikazioa eta adierazpena**

Nork bere burua ezagutzea eta autonomia pertsonala

Etapan zehar, ingurunean dituzten esperientzien bidez, haurrek beren gorputza ezagutu behar dute (atalez atal eta osoki), zertarako erabil daitekeen ohartu, eta sentsazioak identifikatu behar dituzte.

Era berean, norberaren eta besteen ezaugarriez jabetzea funtsezko baldintza da pertsonaren garapenerako eta jarrera ez diskriminatzaileak lantzeko. Irakasleak ezaugarri pertsonalak –hala nola larruzalaren kolorea– erabili behar ditu anitzasuna landu eta balioak indartzeko (errespetua, desberdintasunak onartzea...).

Haur Hezkuntzan, garrantzi handia du ere ohitura egokiak hartzeak osasun arloan, higienean eta elikaduran. Ohitura horiei esker, ikasleek beren gorputza eta eguneroko bizitzari lotutako ingurunea zaintzen dute, eta aukera ematen diete gero eta autonomia handiagoz jokatzeko.

Arlo honekin lotura estuena duen helburua hauxe da:

- **Segurtasunarekin, higienearekin eta osasuna zaintzearekin lotutako ohiturak eta jokabideak barneratzea, oreka eta ongizate emozionala sortzen duten eguneroko egoeren garrantziaz jabetuta.**

Gainera, beste helburu batzuei ere lotuta dago: nork bere ezaugarriak pixkanaka identifikatzea, gorputza ezagutzea edo besteen errespetuan oinarritutako ohiturak eta jokabideak garatzea.

Ingurunea ezagutzea

Ingurune naturalak eta hura eratzen duten izakiek eta elementuek haurren interesa eta jakin-mina pizten dituzte txikitatik. Naturan dituzten esperientziak eta haiei buruzko gogoeta, eskolan eginiko lan egokiaz lagunduta, aukera ezin hobea dira hainbat fenomeno aztertzeko -hala nola eguzki erradiazioa-, hobeto ezagutzeko eta haien ondorioak baloratzeko.

Beraz, arlo honetatik (ingurunea ezagutzea), fotobabesarekin zerikusia duten helburu batzuk proposatzen dira:

- **Ingurunea aktiboki aztertzea eta behatzea, egoera eta gertakari adierazgarri batzuei buruzko interpretazioak eginez, eta horiek ezagutzeko interesa erakutsiz.**
- **Ingurune naturalaren oinarrizko osagaiak ezagutzea eta baloratzea, baita ingurune horretan gauzatzen diren erlazio eta aldaketa batzuk ere, eta zaintza, errespetua eta erantzukizuna bultzatzea hura babesteko.**

Hizkuntzak: komunikazioa eta adierazpena

Arlo honen xeeda da haurren eta ingurunearen arteko harremana hobetzea. Komunikazio eta adierazpen moduek lotu egiten dituzte kanpoko eta barneko munduak, eta tresnak dira errealtitatea azaltzeko, pentsamenduak, sentimenduak eta biziaren adierazteko, eta besteekiko interakzioak ahalbidetzeko.

Hizkuntza, alde horretatik, ezagutzak eskuratzeko "giltza" izango da, fotobabesari buruz jakin beharrekoak barneratu eta babes horretarako ohiturak eta jokabideak hartzeko. Horregatik, gida honi lotuta garrantzi handia duen helburuetako bat hauxe da:

- **Hizkuntza erabiltzea komunikatzeko, adierazteko, ikasteko eta gozatzeko tresna gisa, ideiak eta sentimenduak adierazteko, eta ahozko hizkuntza baloratzea besteekin harremanak izateko eta elkarbizitza erregulatzeko baliabide gisa.**

Azkenik, irakaskuntza lanak kontuan izan behar du ikasleen anitzasuna, eta irakasleak egon behar du bere zeregina haurren ezaugarri pertsonal, behar, interes eta estilo kognitiboetara, aintzat harturik adin hauetan heltze erritmoak eta prozesuak duten garrantzia.

Horrenbestez, ikastetxeek aintzat hartuko dituzte hezkuntza behar bereziak dituzten neska-mutikoak, eta haien behar eta ezaugarrietara hobekien egokitzen den moduan erantzungo diete.



Gida nola erabili

Gidak lau unitate didaktiko ditu, eta unitate bakoitzak arreta berezia jartzen du fotobabesari lotutako gai batean: Eguzkia, larruazala, eguzki erradiazioaren onurak eta kalteak, eta fotobabeserako neurriak.

Unitate guztiak modu berean egituratu ditugu: hasteko, unitatearen kontzeptu mapa agertzen da, atal guztiak barne hartuta, eta, ondoren, jarduerak nola garatu behar diren azaltzen da. Beraz, unitate guztiekin garapen berbera dute.

Lehenik, Sarrera atalean, gaiaren aurkezpen labur bat egiten dugu, eta, ondoren, unitatearen *Helburuak* eta *Edukiak* aipatzen dira.

Jarraian, garatu nahi diren *Funtsezko gaitasunak* adierazten dira, garrantzi handikotzat hartzen direnak edozein irakaskuntza-ikaskuntza prozesutan, Haur Hezkuntzako etaparen curriculumak espezifikoki halakotzat hartzen ez baditu ere.

Gauza bera gertatzen da hurrengo atalarekin: *Zeharkako elementuak*. Horietako batzuk lau unitateetan agertzen dira, eta beste batzuk espezifikoagoak dira, aztertutako gaiaren arabera.

Unitate guztien egituran sartu dugun beste atal bat *Adimen anitzak* (H. Gardner) da, uste dugulako egungo hezkuntza sistemak harago joan behar duela, ez duela mugatu behar Hizkuntza edo Matematika bezalako arlo instrumental tradizionalei lehentasuna ematera, eta garrantzi berekoak diren beste gaitasun batzuk ere garatu behar dituela: hala nola musika gaitasuna, ikus gaitasuna, etab.

Gida honek Haur Hezkuntzako etapari erreparatzen dioenez eta etapa horretan era globalizatuan lan egiten denez, etapa horren hiru *Curriculum arloak* hartu ditugu kontuan gai bakoitza lantzeko orduan.

Proiektua hezkuntza komunitateko kide guzientzat sortu denez, *Jarduerak* pentsatuta daude ikasleentzat, familiarentzat eta ingurunearentzat.

Ikasleekin egin beharreko jarduerei dagokienez, hasteko eta motibatzeko jarduera batekin hasten gara: landu behar den gaiari buruzko ipuin bat irakurtzea. Ondoren, gaia garatzeko zortzi jarduera proposatzen dira (komeni da gutxienez bi edo hiru egitea), eta amaitzeko jarduera bat, azken emaitza jasotzeko horma irudi batean.

Jarduerak sortzean, aintzat hartu ditugu printzipio metodologiko hauek:

- Ikaskuntza esanguratsua, abiapuntutzat harturik ikasleak jada badakiena eta aurretik izan dituen esperientziak.
- Parte hartze aktiboa eta esperientziak biziak, ikasitako barneratzeko oinarrizko elementu gisa.
- Jarduera manipulatiboa, objektuekin eta materialekin esperimentatuz.
- Ikerketa-ekintza, bultzada emateko aurkikuntzak eginez ikasteari.
- Jarduera ludikoa, jolasak hartuta ikasleak motibatzeko iturritzat.

Jarduerak diseinatzean, kontuan hartu ditugu hezkuntza behar bereziak edo ikasteko zaitasunak izan ditzaketen haurrak, bazterrean geldi ez daitezen. Horregatik, proposatzen ditugun jarduerak errazak dira, ikasle bakoitza horiek egiteko gai izan dadin, elkarlanean batzueta, eta horren bidez, lankidetza eta enpatia garatzen dugu berdinek osatutako taldean. Hala eta guztiz ere, irakasleak edozein jarduera alda dezake (sinplifikatu edo zaildu), komenigarria izanez gero bere ikasle taldearen ezaugarriak ikusirik.

Jarduera batzuek jarduera osagarriak dituzte.

Azkenik, kontzeptu mapan, Ebaluazio irizpideak adierazi ditugu, helburuak zer mailataraino bete diren jakiteko eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan jarraibide gisa erabiltzeko.

Jardueren garapena azaldu ondoren, ideia osagarri batzuk erantsi ditugu.

Gidak maskota bat du (Argitxo), ikasleak motibatzeko eta unitateak dinamizatzeko erabiltzen dena, eta horregatik, lehenengo lan saioan aurkeztu behar da. Hain zuen ere, 1. unitateko izen bereko ipuinaren protagonista da. Ipuinak azaltzen du nor den izar hori, nondik datorren eta zein den haren eginkizuna.

Komeni da unitateak gidan duten hurrenkeren lantza, gai abstraktuenetik (Eguzkia) zehatzenera (fotobabesa) antolatu ditugulako. Nolanahi ere, irakasle bakoitzak erabakiko du unitateak eta jarduerak zer hurrenkeratan antolatu, talde bakoitzaren interes eta beharren arabera, eta harena izango da ere temporalizazioa zehazteko ardura.

Izan ere, honako hau gida didaktiko bat da, eta lanerako tresna erabilgarri izan behar du batik bat.



Unitate didaktikoak

U.D.1 : "Argitxo"

U.D.2: "Larruazala sentituz"

U.D.3: "Eguzkiaren errainuak"

U.D.4: "Fotobabeserako neurriak"

4.1. 1. UNITATE DIDAKTIKOA





Sarrera

Eguzkia ezinbestekoa da Lur planetako izaki bizidunen garapen eta eboluziorako. Izar argitsu bat da, gure planeta sistemaren erdian kokatua dagoena, eta haren inguruan beste gorputz batzuk biratzen dira (planetak, asteroideak, meteoroideak, kometak eta hautsa).

Audituen arabera, gas beroko bola esferiko handi hau duela 4.600 milioi urte sortu zen gutxi gorabehera, eta funtsezko eginkizunak ditu: bizirako tenperatura egokiak ahalbidetzea, landareen fotosintesia bezalako prozesuetan esku hartzea, egunaren eta gauaren arteko muga ezartzeara, meteorologia definitzea eta Lurreko eskualdeen prozesu klimatikoetan eragitea.

Eguzkiak berebiziko eragina du gizakiarengan, eta onurak (D bitaminaren sintesia, aldartean eragina, arnas sistema hobetza, erantzun immunologikoa indartzea...) eta kalteak (erredurak, larruazaleko minbizia...) eragin diezazkioke.



Hori dela-eta, garrantzitsua da argizagi honi buruz pitin bat gehiago jakitea, historian zehar hainbat zibilizaziok eta herrik gurtu duten astroa.

Helburuak

- Eguzkia zer den jakitea.
- Eguzkia eguzki sistemana eta gure planetari dagokionez kokatzea.
- Eguzkiak bizi eta energia iturri gisa zer funtzio nagusi dituen jakitea.

Edukiak

- Eguzkia.
- Eguzkiaren kokapena eguzki sistemana eta gure planetari dagokionez.
- Eguzkiaren funtzio nagusiak bizi eta energia iturri gisa.

Funtsezko gaitasunak

- Hizkuntza komunikazioa.
- Gaitasun matematikoa eta oinarrizko gaitasunak zientzian eta teknologian.
- Ikasten ikastea.
- Gaitasun digitala.

Zeharkako elementuak

- Garapen iraunkorra eta ingurumena.
- Gaitasunak: sormena, autonomia eta talde lana.
- Irakurketaren eta idazketaren hastapenak.
- Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak erabiltzen hastea.

Adimen anitzak

- Hizkuntzalaritzako adimena.
- Naturalista.
- Espaziala edo bisuala.
- Musikala.
- Pertsonen artekoa.

Curriculum arloak

- Nork bere burua ezagutzea eta autonomia pertsonala.
- Ingurunea ezagutzea.
- Hizkuntzak: komunikazioa eta adierazpena.



Jarduerak IKASLEEKIN

Hasteko eta motibatzeko:

1. Ipuina: "Argitxo".

Garatzeko:

2. Irudiak edo bideoak ikustea.
3. Egia ala gezurra.
4. Igarkizunak eta poesiak.
5. Abestiak.
6. Itzalak neurtea.
7. Haziak landatzea.
8. Itzala zapaltzea.
9. Hotza ala beroa.

Amaitzeko:

10. Eguzkiaren edo eguzki sistemaren horma irudia.



Jarduerak FAMILIAREKIN

Ikerketa tailerra: kutsadura eta berotegi efektua.



Jarduerak INGURUNEAREKIN

Argitxoren etorreraren berri ematea ingurune hurbilari.

Ebaluazio irizpideak

- Badaki Eguzkia izar bat dela.
- Ezagutzen ditu Eguzkiaren ezaugarri batzuk: tenperatura eta Lurrarekin alderatuta duen tamaina.
- Gai da Eguzkia eguzki sistemaren barnean kokatzeko.
- Gai da Eguzkia Lurrari dagokionez kokatzeko.
- Eguzkiaren funtzio nagusiak bereizten ditu: argitzea eta berotzea.


JARDUEREN GARAPENA

1. Jarduera Ipuina: "Argitxo" (hasteko eta motibatzeko)

.....

Jardueraren deskribapena:

Proiektuaren hasieran, garrantzitsua da Argitxo maskota aurkeztea eta nolabaiteko jakin-mina piztea haren



inguruan. Horretarako, ikasleei maskota erakutsi eta haren itxurari buruzko azalpenak emango zaizkie (kolorea, forma...). Komeni da umeek maskota ukitzea eta harekin jolas egitea.

Maskotaren eginkizuna da unitate didaktikoak dinamizatzea eta motibagarriak izatea Haur Hezkuntzako ikasleentzat. Unitate bakoitzeko ipuina kontatzeaz arduratuko da, eta irakasleari lagunduko dio gidako gaiak aurkezten, haurren adinarekin bat datorren hizkuntza erabilita.

Lehenengo jarduera honetan, "Argitxo" izeneko ipuina kontatuko da, maskotaren beraren laguntzaz, eta, ondoren, galderak egingo dizkie ikasleei, entzun dutena ulertu duten jakiteko:

- Zer izen du nire lehengusuak?
- Non dago?
- Nire lehengusua -Eguzkia- ateratzen denean, zer da: eguna ala gaua?
- Zer forma du Eguzkiak?
- Zer egiten du?
- Zertaroko balio du?
- Atsegin duzue Eguzkia? Zergatik?



Ipuina: "Argitxo"



1. ORRIA

Argitxo izar bat da, beste izarrak ez bezalakoa, eta ikaragarri atsegin du bidaiatzea eta beste izar batzuei bisita egitea. Eguzkia lehengusua du, eta hura bisitatzen dator.

– Kaixo, Argitxo naiz eta Eguzkia nire lehengusua da!

Lehengusuak kontatu dit bera oso garrantzitsua dela Lur planetarentzat eta izaki bizidun guztientzat (pertsonak, animaliak eta landareak). Botere handia du: argia eta bero goxoa ematen dizkizue.

Suertekoa naiz horren lehengusu garrantzitsua izateagatik!

2. ORRIA

– Dena dela, hodeiek esan didate batzuetan nire lehengusuaren errainuak oso indartsuak direla eta kalte egin dezaketela.

Horregatik eterri naiz zuengana, nire lehengusuak zer garrantzi duen erakustera, baina baita haren izpi indartsuetatik nola babestu behar dugun azaltzera ere.

Nire lehengusuak dir-dir egiten du egun osoan, ez du atsedenik hartzen, eta bero handia ematen du, beste izarrek bezalaxe... Izan ere, ez dakit badakizuen, baina Eguzkia izar bat da, ni bezala.

3. ORRIA

– Nire lehengusuak distira egiten duenean zeruan, eguna da, eta ikusten ez duzuenean, ilun dago eta gaua da. Suzko esfera handi baten itxura du, oso handia, sekulakoa.

(Argitxok galdera egiten die orain haurrei, elkar eragiteko)

– Neska-mutikook... ikusi duzue nire lehengusua ñir-ñir egiten? Non? Atsegin duzue Eguzkia?

Tira, ikusten dut ezagutzen duzuela. Baina ezagutu nahi duzue pitin bat hobeto? Horrela bada, zuekin geratuko naiz eta gauza asko ikasiko ditugu nire lehengusuari buruz.

(Argitxok galdera egiten dio orain irakasleari, elkar eragiteko)

Argitxo:

– Aizu, andereño... Zergatik ez dugu zerbait egiten haur hauek nire lehengusuari buruzko gauzak ikasaten?

Irakaslea:

– Oso ideia ona iruditzen zait, Argitxo. Nahi baduzu, oraintxe bertan has gaitezke lanean. Ea neska-mutikook, nahi duzue Eguzkiari buruz gauza gehiago jakin?

Irakasleak eta ikasleek Eguzkiaren irudi edo bideo batzuk ikusiko dituzte, Internetetik hartutakoak.

Amaitzeko, jardueraren hasieran proposatu diren entzunezko ulermeneko galderak egingo dira.

Baliabideak: "Argitxo" ipuina, ipuinaren orriak, Argitxo maskota eta Eguzkiaren irudiak (Interneten aurkitutakoak).

Jarduera osagarria:

→ **IPUINA: "NONDIK DATOR ARGITXO?"**

Jardueraren deskribapena:

Behin Argitxoren aurkezpena eginda, "Nondik dator Argitxo?" ipuina konta daiteke, beste saio batean. Horretarako, maskota eta ipuinaren orri irudiztua erabiliko dira.

Kontaketa giro lasai eta erosoa batean egin behar da: batzarrean, adibidez. Kontaketa amaitzean, ikasleek adieraziko dute zer gustatu zaien gehien edo zer gogoratzen duten ipuinetik.

Ondoren, irakasleak solasaldia gidatuko du, haurrek zer mailataraino ulertu duten ikusteko, honelako galderak eginez:

- Non zegoen Argitxo?
- Izar bat baldin bazen... zergatik mugi zitekeen?
- Zer tamainatakoa zen?
- Nor zen haren lehengusua?
- Zer esan zioten hodeiek lehengusuaz?
- Argitxo Lurrera iritsi zenean, nondik sartu zen?

Ipuina: "Nondik dator Argitxo?"



1. ORRIA

Unibertsoa berealdikoa da eta milaka milioi izar ditu, distira ikaragarria egiten dutenak, eta haien argia milaka milioi kilometroko distantziatik ikus daiteke.

Dena dela, izarrak ezin dira beren lekutik mugitu. Izar horien guztien artean, bat oso txikia da, baloi bat bezain txikia. Berezia da eta Argitxo du izena.

Argitxo nekatuta zegoen beti gauza bera egiteaz: dir-dir eta ñir-ñir egitea, eta inguruari ñirñirka zituen izarrei begiratzea.

– Ikaragarri gustatuko litzaidake inguruari dudan guztia ezagutzea! –pentsatu zuen Argitxok.

Egun batean, horretan horrenbesteko gogoaz pentsatzen ari zela, ametsa egi bihurtu zen. Bat-batean, tokiz alda zitekeen.

Ezin zuen sinetsi!



— Primeran, mugi naiteke! Orain goian nago!, orain behean! kar, kar, kar... —barre egin zuen emozioz beterik.

Oso zoriontsua zen, lekuz alda zitekeen!

2. ORRIA

Egun hartatik aurrera, Argitxo unibertsoko lehen izar bidaaria bihurtu zen. Irrikan zegoen mundu berriak aurkitu eta esploratzeko, eta, jakina, beste izarrei bisita egiteko.

Urrutiko galaxia eta planeta asko bisitatutu ondoren, Esne Bidea aurkitu zuen —hau da, gure galaxia—, eta haren planeta guztien artetik Lurra izan zen deigarrien gertatu zitzaina.

Era el único lugar donde ella había visto seres vivos que se movían y desplazaban. Así que lo primero que hizo fue hablar con su primo, el Sol.

3. ORRIA

- Kaixo, Eguzki. Zure níñirrak zoratzen nau! —esan zuen Argitxok.
- Zer moduz, Argitxo! Ez nekien izarrek batetik bestera ibiltzen zinetenik. Bitxia, bai horixe! harriduraz esan zuen Eguzkiak.
- Izar berezi bat naiz. Aizu, lehengusu, zer izen du kolore urdineko planeta horrek? —galdetu zuen jakin— minez Argitxok.
- Planeta hori Lurra da. Gogokoena dudan planeta —erantzun zion Eguzkiak.
- Gustura joango nintzateke hara. Baino gehiegi hurbiltzen banaiz... beharbada kalte egingo diot nire distirarekin —esan zuen izar txikiak kezkatí.
- Lasai, Argitxo! Ziur naiz ez zaiola ezer gertatuko, hain zara txikia.

Argitxo poliki-poliki Lurrerantz hurbiltzen hasi zen.

4. ORRIA

Izar maitagariak egin zuen lehenengo gauza hodeiekin hitz egitea izan zen.

– Kaixo, Argitxo naiz. Zer zarete zuek?

- Gu hodeiak gara eta oso eginkizun garrantzitsua dugu Lur planetarentzat.

– Erantzun zuten hodeiek. Guri esker, euria egiten du, eta Eguzkiaren izpiak ez dira horren indartsu iristen Lurrera.

– Eta zergatik ez da komeni Eguzkiaren izpiak indartsu iristea Lurrera? Nire lehengusuari izugarri gustatzen zaio Lurra eta haren biztanleak ukitzea –ihardetsi zuen Argitxok.

– Bai, egia da, baina batzuetan Eguzkiak gogorregi jotzen du eta kalte egin diezaietik Lurreko biztanleei. Itzal bila ibili behar dute, zure lehengusuarengandik ihesi –azaldu zuten hodeiek.

– Beraz, onena izango da Lurrera jaistea eta han galdeztea –erantzun zuen izar bidaiaiak.

Argitxok agur esan zien hodeiei eta Lurrerantz jarraitu zuten.

5. ORRIA

Lurrera iristean, eraikin handi bat ikusi zuen, ESKOLA idatzirik zuena, eta zabalik zegoen lejio batetik sartzea erabaki zuen.

Ikasgelan, neska–mutikoak batzarrean zeuden, Eguzkiaz hizketan. Argitxo leihoa gelditu zen. andereñoa ikasleei esaten ari zitzaiena entzuten.

– Kaixo, neska-mutikoak, gaur Eguzkiaz hitz egingo dugu, gure laguna –esan zuen andereñoak

Baliabideak: "Nondik dator Argitxo?" ipuina, ipuinaren orriak eta Argitxo maskota.

2. Jarduera Irudiak edo bideoak ikustea (garatzeko)

Jardueraren deskribapena:

Irakasleak Eguzkiaren irudiak erakutsiko ditu arbel digitalean edo paperean, taldean solasaldi bati ekiteko. Honelako qalderak egin ditzake:

- Zer da Eguzkia?
 - Zer ematen digu?
 - Zer forma du?
 - Zertarako balio du Equzkiaren arqiak?

Baliabideak: Equzkiaren irudiak eta irudiak eskuratzeko web estekak.



Estekak:

https://www.youtube.com/watch?list=PL_Y3qbepMRoYexJSdFAGfEJGU4JflKKUL&v=ZykXgSqe6A (Eguzki sistema)

<https://www.youtube.com/watch?v=gHhyW9HRBvo> (Gauari buruzko azalpena)

Jarduera osagarria:

→ ZERUA MARRAZTEA

Jardueraren deskribapena:

Zeruaren marrazki bat egitea. Bi aukera:

- Eman folio bana ikasleei. Argizariz, alde bat zero kolorez margotuko dute; bestea, kolore beltzez. Zero kolorez margotutako aldean, zirkulu hori bat (Eguzkia) itsatsiko dute. Gero, Eguzkiaren errainuak marraztu eta hodei zuriak egingo dituzte, kotoiz. Alde beltzean, zirkulu zuri bat (Ilargia) eta izarrak itsatsiko dituzte.
 - Eman folio bana ikasleei eta esan zerua marrazteko, nahi duten bezala.

Baliabideak: folioak, argizariak (zeru kolorekoak eta beltzak), gometx edo pegatina zirkularrak (horiak eta zuriak), izarren pegatinak (zuriak edo horiak), arkatzak eta errrotuladoreak.

3. Jarduera Egia ala gezurra (garatzeko)

Jardueraren deskribapena:

Irakasleak Equzkiari buruzko baieztapen batzuk egindo ditu eta ikasleek egia ala qezurra diren esango dute.

- Eguzkia izar bat da.
 - Eguzkiak argia ematen du, baina ez du berotzen.
 - Eguzkia qaeuz ateratzen da.

- Eguzkia egunez ateratzen da.
- Ozono geruzak Eguzkitik babesten gaitu (aukerakoa).

Baliabideak: Eguzkiari buruzko baieztapenak.

4. Jarduera Igarkizunak eta poesiak

.....

Jardueraren deskribapena:

Eguzkiarekin zerikusia duten igarkizunak asmatzea eta poesiak errezitatzea.



Baliabideak: igarkizunak eta poesia.

ASMATZEA

Bero goxoa ematen dut borobil–borobila naiz goizean goiz atera eta ilunabarrean ezkutatzen naiz. (Eguzkia)	Horaila naiz eta ez dut ilerik astroen errege esaten didate eta ez dut erreinurik. (Eguzkia)
Urre koloreko txanpon handia oso balio handikoa nigatik ez duzu ezer ordainduko. (Eguzkia)	Egunez jaikitzen naiz eta gauez oheratzen ilunabarra gorritzen dut ezetz asmatu nor naizen! (Eguzkia)
Izugarria, sekulakoa Lurra baino handiagoa gori–gori dago eta ez da erretzen, badakizu zer den? (Eguzkia)	Gauez agertzen dira inork deitu gabe egunez alde egiten dute agur eta bihar arte! (Izarrak)

POESIA

“Tantatxo”


Tantatxo hodeian dago,
gora eta behera kulunkan.
Hodeia hoztu egin da
doministiku egin du.
Tantatxo Lurrera erori da
belarra busti du.
Negar malkotan hasi da
hodeira itzuli nahi du.
Eguzki adiskidea hurbildu da
errainu batetik gora igo du.
Tantatxo berriz hodeian dago,
gora eta behera kulunkan.

5. Jarduera Abestiak

.....

Jardueraren deskribapena:

Abestiak kantatzea taldean, ahotsa eta gorputza erabilita kantak antzezteko.



"Esna zaitez, Eguzki"

Esna zaitez Eguzki, bero nazazu pitin
bat gaur, bihar eta aste osoan:

astelehena, astearte, asteazkena, osteguna, ostirala,
larunbata eta igandea.

"Bero handia baduzu"

Bero handia baduzu,
jantzi txanoa eta hobeto sentituko zara.

Bero handia baduzu,
jantzi txanoa, edan ura
eta hobeto sentituko zara.

Bero handia baduzu,
jantzi txanoa, edan ura, zoaz itzalera
eta hobeto sentituko zara.

Bero handia baduzu,
jantzi txanoa, edan ura, zoaz itzalera,
jantzi eguzkitako betaurrekoak
eta hobeto sentituko zara.

Gehitu beste abesti batzuk)

Baliabideak: abestiak eta ikasgela edo gimnasioa.

6. Jarduera Itzalak neurtzea (garatzeko)

Jardueraren deskribapena:

Ikasleak eguzkitan jarriko dira egunean zehar hiru unetan (goizeko lehen orduan, eguerdian eta, ahal izanez gero, arratsaldean edo eskolatik irten aurretik), eta orduaren arabera zer itzal sortzen duten ikusiko dute.

Puntu bat aukeratuko dute jolastokian, eta 2 edo 3 ikasle kokatuko dira hor. Beste ikasleek, klarionaz, ikaskideek lurrean sortzen duten itzala marratzuko dute, eguneko hiru une horietan.

Ikasleek ikusi behar dute nola aldatzen den itzala lekuz eta tamainaz orduak igaro ahala.



Jarduera amaitzean ikastaldeak egingo duen batzarrean, esperientzia zer iruditu zaien azalduko dute ikasleek, eta hari buruzko iritziak eta pentsamenduak adieraziko dituzte.

Baliabideak: klarionak eta jolastokia.

Jarduera osagarria:

→ MAMUAREN JOLASA

Jardueraren deskribapena:

Taldeko kideen itzala identifikatzeari komunikatzean datza. Ikasgelaren edo psikomotrizitate gelaren txoko batean, maindire bat jarriko da sabaitik zintzilik lurrera. Atzean, argi foku bat, piztuta, eta gainerako gela guztia ilunpetan. Umeak maindirearen eta argi fokuren artetik igaroko dira, banan-banan. Poliki-poliki igaroko dira, keinuak eta imintzioak eginez. Ikaskideak mamua identifikatzen saiatuko dira.

Baliabideak: maindirea eta linterna.

7. Jarduera Haziak landatzea (garatzeko)

• •

Jardueraren deskribapena:

Ikasleek bi hazi landatuko dituzte (bata leku argitsu batean eta bestea leku itzaltsu batean), leku argitsuan dagoena azkarrago hazten dela ikusteko. Bi astez, haziak nola hazten diren aztertu eta ondorioak aterako dituzte.



Baliabideak: haziak, lurra, ura eta ontzi gardenak.

Jarduera osagarriak:

→ “HAZI TXIKI BATEN...” POESIA

Jardueraren deskripapena:

“Hazi txiki baten...” poesia errexitatzea:

Baliabideak: “Hazi txiki baten...” poesia


→ NOLA HAZTEN DIRA LANDAREAK?

Jardueraren deskripapena:

Landare baten hazkundearen denbora sekuentziak ordenatzea.

Hazi txiki baten
bihotzean ezkutaturik,
landare bat lur azpian
lo goxoan zegoen.
Esna zaitez! esan zion beroak,
Esna zaitez! ur hotzak.
Landareak nagiak atera
eta iratzarri egin zen.
Soineko berdea jantzi
eta gorputza luzatzen hasi zen.
Istorio xume bezain ederra da
landare guztien jaiotzarena.

(Autor: Manuel F.G)



Baliabideak: landare baten hazkundearen denbora sekuentziak.

8. Jarduera Itzala zapaltzea (garatzeko)



Jardueraren deskribapena:

Ikasleak jolastokian lasterka hasi eta ikaskideen itzalak zapaltzen ahaleginduko dira. Batak bestearen itzala zapaltzean, bigarrena geldirik geldituko da. Jarduera aire zabalean egin behar da.

Baliabideak: ikastetxeko jolastokia.

9. Jarduera Hotza ala beroa (garatzeko)



Jardueraren deskribapena:

Hotz eta bero sentsazioak esperimentatzea hainbat eratako materialak, objektuak eta likidoak erabilita. Hasteko, gel poltsa izoztuak (inflamazioetan erabiltzen direnak) uki daitezke, edo leihonetako edo mahai eta aulkien hanketako aluminioa, zorua... Ondoren, hotz hori tenperatura beroarekin kontrastatu, eskua ur berotan sartuz (irakingailu bat erabilita, adibidez), eskuak erradiadore batera hurbilduz, eskuak igurtzi dituen ikaskide baten eskuak ukituz... Beste aukera bat da jolastokira irtetea eta bi objektu berdin ipintzea, bata itzalean eta bestea eguzkitan, eta azken hori nola berotzen den ikustea.

Baliabideak: objektu material hotzak eta beroak (jardueran aipatutakoak, adibidez) eta jolastokia.

Jarduera osagarria:

→ “BEROA” ALA “HOTZA” JOLASA

Ikasleei adieraziko zaie “beroa” entzuten dutenean hurbil esan nahi duela, eta “hotza” entzutean, urrutি. Gero, haur batek Argitxo ezkutatuko du ikasgelan, jolastokian edo psikomotrizitate gelan, eta ikaskideak haren bila hasiko dira: maskotara hurbiltzen direnean, “beroa” esango du; urruntean, “hotza”.

Baliabideak: Argitxo maskota eta ikasgela, jolastokia...

10. Jarduera Eguzkiaren edo eguzki sistemaren horma irudia (amaitzeko)

• •

Jardueraren deskribapena:

Ikastaldeak horma irudi bat egingo du, Eguzkiarena edo eguzki sistemarena. Bigarren kasuan, Eguzkiaren eta Lurraren kokapenak adieraziko dira.

Baliabideak: paper jarraitua, arkatzak, koloreak, tenperak...

Jarduera familiarekin

→ IKERKETA LANA: KUTSADURA ETA BEROTEGI EFEKTUA

Jardueraren deskribapena:

Hasteko, kanpainari buruzko informazio ohar bat igorriko zaie familiei, eta eskatuko zaie, informazio gehiago nahi izanez gero, eskolako aldizkaria edo egunkaria irakurtzeko eta ikastetxeko blogean sartzeko. Facebookeko orri hau ere jarrai dezakete: "Disfruta del Sol sin Dejarte la Piel".

Lehenengo unitate honen gaia Eguzkia dela adieraziko zaie.

Familiek informazioa jaso ondoren, eta haien laguntzaz, gure planetarentzat kaltegarriak diren eta kutsatu egiten duten gauzei buruzko aldizkari ebakinak, argazkiak, marrazkiak eta etxeeko objektuak ere (esprai poto hutsak...) ekarriko dituzte ikasleek ikasgelara. Material horrekin guztiarekin, horma irudi bat egin, "Zeru eta planeta garbiak nahi ditugu" izenekoa.

Jarduera garatzeko, familiak ikasgelara etor daitezke, irakasleak hala adierazten dienean, eta erakusketa txiki bat egin daiteke ekarritako materialarekin. Gurasoek eta seme-alabek gauza bakoitzaz zergatik den kutsagarria azalduko dute.

Baliabideak: aldizkari ebakinak, argazkiak, marrazkiak, etxeeko objektuak (kutsagarriak), paper jarraitua, kola, guraizeak, koloreak...

Jarduera ingurunearekin

→ ARGITXOREN ETORRERAREN BERRI EMATEA INGURUNE HURBILARI

Jardueraren deskribapena:

Argitxo heldu dela jakinaraziko da eskolako aldizkari, egunkari edo blogaren bitartez, labur azalduz nor den eta zertara etorri den. Argazkiak erantsi daitezke: ikasleek maskotari eginiko ongietorriaren argazkiak.



Gainera, kanpainari buruzko kartelak banatuko dira inguruko leku estrategikoetan (osasun zentroak, farmaziak, kultura eta kirol zentroak, liburutegiak...), hari buruzko informazioa eman eta maskota aurkezteko. Banaketa egiteko modu bat izan daiteke leku horietara joatea ikasleekin batera. Dena dela, beti bezala, irakaslea izango da kasu bakoitzean erabakiko duena.

Garrantzitsua da leku horietako arduradunek informazioa jasotzea kanpainari buruz, koordinazioa eta jarraitutasuna ahalbidetzeko ondoz ondoko unitate didaktikoen kartelen banaketan.

Baliabideak: kanpainaren informazio kartelak eta eskolako aldizkaria, egunkaria edo web orria.

Ideia osagarriak

- Planetario batera joatea edo planetario eramangarri bat eskatzea. Bigarren aukera hori esteka honen bidez egin daiteke www.educaixa.com/-/planetamovil_astronomia.
- Eguzki sistemaren maketa bat egitea familien laguntzaz.

4.2. 2. UNITATE DIDAKTIKOA



Sarrera

Larruazala giza gorputzaren organo nagusia da. Gure organismoa isolatzen du, babestu egiten du ingurunetik, haren egiturak osorik mantentzen laguntzen du eta ingurunearekiko komunikazio sistema gisa aritzen da.



Organo honek hainbat gaixotasun izan ditzake: larruzaleko minbizia, besteak beste. Minbizi horren arrisku faktore nagusia izpi ultramoreen esposizioa da, eta izpi horiek izan daitezke eguzki argiarenak edo argi iturri artifizialenak (belztek kabinak).

Horregatik, oso garrantzitsua da pitin bat gehiago jakitea gure gorputz atal honi buruz, hora zaindu eta babesteko modu egokiena delako.

Helburuak

- Larruzala zer den eta zertarako balio duen jakitea.
- Larruzal fototipoak bereiztea.
- Norberaren eta besteen larruzal fototipoak bereiztea.

Edukiak

- Larruzala eta haren funtzioa.
- Larruzal fototipoak.
- Norberaren eta besteen larruzal fototipoak zehaztea.

Funtsezko gaitasunak

- Hizkuntza komunikazioa.
- Gaitasun matematikoa eta oinarrizko gaitasunak zientzian eta teknologian.
- Ikasten ikastea.
- Gaitasun digitala.

Zeharkako elementuak

- Arrazismoaren eta xenofobiaren prebentzioa.
- Ohitura osasuntsuak hartzea: larruzalaren higienea.
- Gaitasunak: sormena, autonomia eta talde lana.
- Irakurketaren eta idazketaren hastapenak.
- Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak erabiltzen hastea.

Adimen anitzak

- Hizkuntzalaritzako adimena.
- Gorputz adimena.
- Bisuala.
- Musikala.
- Pertsonen artekoia.

Curriculum arloak

- Nork bere burua ezagutzea eta autonomia pertsonala.
- Ingurunea ezagutzea.
- Hizkuntzak: komunikazioa eta adierazpena.



Jarduerak IKASLEEKIN

Hasteko eta motibatzeko:

1. Ipuina: "Kameleoi larrau".

Garatzeko:

2. Irudiak ikustea.
3. Larruazal fototipoen jolasak.
4. Igarkizunak, poesiak eta abestiak.
5. Aldizkari ebakinak.
6. Poltsa magikoa.
7. Ehunduren tailerra.
8. Larruazalaren medikuari bisita: dermatologoa.
9. Desberdintasunen jolasak.

Amaitzeko

10. Larruazal fototipoen eta higiene arauen horma irudia.



Jarduerak FAMILIAREKIN

Zuhaitz genealogikoa - fototipoa



Jarduerak INGURUNEAREKIN

Kanpainaren zabalkundea

Ebaluazio irizpideak

- Badaki larruazala giza gorputzaren organo bat dela.
- Larruazala gorputza babesten duen geruza bat dela ulertzen du.
- Larruazal fototipoak bereizten ditu (Fitzpatrick).
- Bere larruazal fototipoa bereizten du.
- Gai da beste pertsona batzuetan larruazal fototipoa bereizteko.

JARDUEREN GARAPENA

1. Jarduera

Ipuina: "Kameleoi larraua" (hasteko eta motibatzeko)

Jardueraren deskribapena:

Hasteko, irakasleak "Kameleoi larraua" izeneko ipuina kontatuko du, Argitxo maskotaren eta orri irudiztatuen laguntzaz. Gero, ipuinari buruz arituko da hizketan ikasleekin, ideiak, gogoetak, gustuak, esperientziak... trukatuz. Trukerako tarte horren ondoren, solasaldi egituratuago bati ekingo zaio, era honetako ulermen galderakin:

- Zer izen du ipuineko mutikoak?
- Zer maskota oparitu zioten gurasoek?
- Zer gertatu zitzaison deigarri?
- Zer eskatu zien andereñoak?

- Zer pentsatu zuen Lontxok bere kameleoia aztertzen hasi zenean?
- Zer ezaugarri berezi dute kameleoiek?
- Nork lagundu zion Lontxori?
- Zer egin zuten Lontxok eta haren amonak?
- Pertsonak ere kolorez aldatzen gara?
- Zer gertatzen zaie pertsonei denbora asko igarotzen dutenean eguzkitan?

Baliabideak: “Kameleoi larrua” ipuina, ipuinaren orriak eta Argitxo maskota.

Ipuina: “Kameleoi larrua”



1. ORRIA

Lontxo etxera iritsi zenean ezuste galanta izan zuen: gurasoek ustekabe handi bat prestatu zioten. Begi irtenak zituen animalia bat ikusi zuen, igel baten batere antzik ez zuena, larru bitxi baina interesgarri batekin.

- Zer animalia da hau, amatxo? Beste planeta bateko izaki bat da? –galdetu zuen Lontxok.
- Ez, maitea, kameleoi bat da –erantzun zion amak.

Biharamunean, Lontxo eskolara iristeko irrikan zegoen, lagunei kontatzeko oso maskota berezia zuela etxearen.

2. ORRIA

Maddalen andereñoak entzun zuen zer kontatzen ari zitzaien Lontxo ikaskideei eta aukera baliatu zuen animaliei buruzko lan bat egiteko.

Ikasleek animalia bana aukeratu behar zuten, eta haren ezaugarri berezi bat azaldu: larrua, elikadura...

Lontxok ez zuen zalantzak izan: bere kameleoiari buruzko lana egingo zuen.

3. ORRIA

Etxera iritsi bezain pronto, lupa bat hartu eta kameleoia azterzeari ekin zion. Bere maskotak egingo zuen guztia idatziko zuen koaderno txiki batean. Dena dela, denbora tarte bat igarota, hiru hitz bakarrik idatzi zituen: larrua, zimurtsua eta koloreak.

Kameleoiak ez zuen ezer dibertigarririk egiten, geldi–geldi zegoen, eta noizbehinka, lo kuluxka bat egiten zuen. Lontxok pentsatu zuen bere maskotak ez zuela ezer berezirik.

4. ORRIA

Halako batean, amona sartu zen gelan eta Lontxorenengana hurbildu zen. Triste zegoen bere maskotaren ondoan.

- Lontxo, zer duzu? –galdetu zuen amonak kezkati.
- Kameleoiak ez du ezer dibertigarririk egiten. Ez dut ezer interesgarririk izango ikaskideei kontatzeko –marmar egin zuen Lontxok.
- Ideia bat bururatu zait! –esan zuen amonak–. Argazki kamera hartu eta argazki batzuk egingo dizkiogu, lorategian, zure ohean eta beste leku askotan, eta ikusiko duzu nola aldatzen den kolorez. Zer deritzozu?

Gainera, nahi baduzu, piknik bat egin dezakegu lorategian.

- Ideia bikaina, amona! –erantzun zuen Lontxok.

5. ORRIA

Amonak, bilobak eta kameleoiak arratsalde atsegin eta dibertigarria igarо zuten lorategian, udaberriko eguzkia amonaren aurpegia gorritzen hasi zen arte.

- Lontxo, ekarri kapela faborez, oso larruazal fina daukat – eta –esan zuen amonak.
 - Zergatik, amona? – galdeitu zuen harriduraz umeak.
 - Zure maskota ez bezala, pertsonak ez gara kolorez aldatzen inguruan kamuflatzeko, baina larruazala gorritzen zaigu erretzen ari garela abisatzeko –ihardetsi zuen amonak.
 - Amona! Nire lanerako ideia bat eman didazu: nire larruazalaren eta kameleoiarenaren arteko desberdintasunez hitz egingo dut –esan zuen Lontxok poz – pozik.

6. ORRIA (OPCIONAL)

Lanak ikaskideen aurrean aurkeztu beharreko egunean, haur guztiak beren maskoten bihurrikeriak aipatu zituzten, zer jaten zuten, nola jolasten ziren... Lontxok, aldiz, askoz interesgarriagoa zen zerbaiti buruz hitz egin zuen: zer garrantzi duen larruazalak izaki bividun guztientzat.

2. Jarduera Irudiak ikustea (garatzeko)

Jardueraren deskribapena:



Irakasleak pertsonen argazkiak erakutsiko ditu eta taldean iruzkinduko dira. Honelako galderak egin daitezke:

- Zer ikus dezakegu?
 - Mutila da ala neska?
 - Gizona ala emakumea?
 - Nola dago jantzita?
 - Nolakoa du gorputza?
 - Gaztea da ala heldua?

Ikasleren batek zerbait esaten badu larruzalaren koloreari buruz, aukeraz baliatu behar da esapide berri bat aurkezteko: "larruzal fototipoa". Horrelako aukerarik berez sortzen ez bada, horretara bultzza daitezke ikasleak honelako galderen bitartez:

- Errepara iezaiezue larruzalei. Berdinak dira denak?
- Zein da argiena?
- Eta ilunena?
- Begiratu zuen larruzalari. Zeinen antza handiagoa du?

Ondoren, larruzal fototipoen ezaugarriei buruz hitz egingo dute, eta haur bakoitzak berea seinalatuko du arbel digitalean (edo papera edo ordenagailua bezalako euskarrietan).

Baliabideak: larruzal fototipo desberdinak dituzten pertsonen irudiak.

3. Jarduera Larruzal fototipoen jolas (garatzeko)

• •

→ LARRUAZAL FOTOTIPOEN MEMORY

Jardueraren deskribapena:

Karta guztiak ahoz behera jarri. Txanda bakoitzean, bi karta altxatzen dira, eta desberdinak izanez gero, berriro ahoz behera ipini, eta txanda igarotzen da. Berdinak badira, ahoz gora gelditzen dira. Helburua da bikote berdin guztiak aurkitzea, irudi bakoitza non dagoen gogoratzen saiatuz.

Talde txikian edo bakarka jolas daiteke.

Baliabideak: larruzal fototipoen memory.

→ LARRUAZAL FOTOTIPOEN BINGOA

Jardueraren deskribapena:

Bingoaren kartoiak -larruzal fototipoekin- banatuko dira ikasleen artean. Bi modutan egin daiteke: talde txikiei kartoi bana emanet edo kartoi bat ikasle bakoitzari.

Gero, irakasleak irudiak aterako ditu kutxa batetik eta ikasleek marka bat egingo dute bat datozen irudietan. Kartoia lehendabizi osatzen duen taldeak edo ikasleak irabaziko du.

Baliabideak: larruzal fototipoen bingoa.

4. Jarduera Igarkizunak, poesiak eta abestiak (garatzeko)



.....

Jardueraren deskribapena:

Larruazalarekin zerikusia duten igarkizunak asmatzea, poesiak errezitatzea eta abestiak kantatzea.

Baliabideak: larruazalari buruzko igarkizunak, poesiak eta abestiak.

ASMATZEA



POESIA

Larruzal desberdinak,
kolore askotakoak,
zuriak, horiak,
beltzak edo marroiak.
Denak dira maitagariak,
desberdinak baina
berdinak,
ez hobeagoak ez
txarragoak,
denak pertsonak.

ABESTIAK

"Bost hatzak"

Hatz txiki, hatz txiki
non zaude?
Hemen nago.
Kaixo zer moduz?
Ni ondo eta zu?
Primeran ni ere bai.
Hatz nagi, hatz nagi
non zaude?
Hemen nago.
Kaixo zer moduz?
Ni ondo eta zu?
Primeran ni ere bai.
Hatz luze, hatz luze
non zaude?
Hemen nago.
Kaixo zer moduz?
Ni ondo eta zu?
Primeran ni ere bai.
Hatz erakusle, erakusle
non zaude?
Hemen nago.
Kaixo zer moduz?
Ni ondo eta zu?
Primeran ni ere bai.
Erpuru, erpuru
non zaude?
Hemen nago.
Kaixo zer moduz?
Ni ondo eta zu?
Primeran, ni ere bai.
Eskua, non zaude?
Hementxe nago.
Zer moduz zaude?
Ondo, eman bostekoa!

*"Nire eskuak"*

Badut esku bat,
dantzarazi egiten dut,
itxi, ireki eta bere
lekuau jarri.
Badut beste esku bat,
dantzarazi egiten dut,
itxi, ireki eta bere
lekuau jarri.
Jada ez dut eskurik
ez dakit non dauden.
Non dira nire eskuak?
Hementxe!

5. Jarduera Aldizkari ebakinak

• •

Jardueraren deskribapena:

Irakasleak aldizkariak banatuko ditu ikasleen artean. Ikasleek pertsonen argazkiak eta irudiak bilatu eta ebakiko dituzte. Paper jarraituan itsatsiko dituzte, munduko biztanleen dibertsitate handiaren horma irudia egiteko.

Gero, horma irudia aztertu eta irudietan agertzen diren pertsonen ezaugarriak aipatuko dira: larruzalaren tonalitateak, ile mota, begien kolorea, etab.

Gogoeta egingo dute pertsonen arteko desberdintasunei eta antzekotasunei buruz, oinarrizko printzipiotzat hartuz desberdinenganako errespetua, pertsonaren ezaugarri fisikoak gorabehera.

Baliabideak: aldizkariak, guraizeak, paper jarraitua, errotuladoreak, kola...

6. Jarduera Poltsa magikoa (garatzeko)

• •

Jardueraren deskribapena:

Objektu batzuk sartuko dira poltsa batean (edo ontzi batean), hainbat forma eta ehunduratako objektuak, eta ikasleak eskatzen zaiona aurkitu beharko du, irakaslearen argibideei jarraituz.

Baliabideak: oihalezko poltsa (edo ontzi bat) eta hainbat forma eta ehunduratako objektuak.



7. Jarduera Ehunduren tailerra (garatzeko)

Jardueraren deskribapena:

Ukitu ehundura desberdinak dituzten objektuak eta materialak: leuna – zimurtsua. Jarduera egin daiteke objektuak begiz aztertuta edo begiak itxita, ukimena lantzeko.

Baliabideak: kotoia, zeta papera, plastilina, lixa...



8. Jarduera Larruazalaren medikuari bisita dermatologoa (garatzeko)

Jardueraren deskribapena:

Ikasleei azalduko zaie badirela mediku batzuk gure larruazala zaintzeko eginkizuna dutenak, eta dermatologoak deitzen zaiela Gero, mozorrotu egingo dira, txandaka, mediku mantalekin, eta sendagilearena egingo dute, ikaskideen larruazaleko oreztak aztertuz, haien tamaina, kolorea...

Baliabideak: mediku mozorroak eta lupak.

9. Jarduera Desberdintasunen jolasa (garatzeko)



Jardueraren deskribapena:

Arbel digitalean (edo paperean), irudi pareak erakutsiko zaizkie ikasleei, larruzal fototipoei eta haien higienerako jokabide egokiei buruzkoak. Irudi pare bakoitzeko desberdintasunak aurkitu beharko dituzte.



Desberdintasunak:

1. Ile horaila – Ile gorria
2. Larruzal argia – Tonu ertaineko larruzala
3. Oreztarik gabeko aurpegia – Oreztadun aurpegia



Desberdintasunak:

1. Gaztaina koloreko ilea – Ile beltza
2. Larruzal argia – Larruzal iluna
3. Oreztarik gabeko aurpegia – Aurpegia gorritasunekin
4. Begi berdeak – Begi beltzak



**1. Marrazkia**

1. Begi marroidun mutila
2. Begi marroidun neska
3. Larruzal argidun mutila
4. Larruzal argidun neska
5. Gaztaina kolore argiko ilea duen mutila

2. Marrazkia

1. Begi belzduen mutila
2. Begi urdindun neska
3. Larruzal iluneko mutila
4. Larruzal argia eta oreztak dituen neska
5. Ile belzduen mutila
6. Niña color de pelo pelirrojo



Baliabideak: irudi pareak (euskarri digitalean edo paperean), larruzal fototipoen arteko desberdintasunak eta higiene arauak lantzeko.

10. Jarduera

Larruazal fototipoen eta higiene arauen horma irudia (amaitzeko)

Jardueraren deskribapena:

Horma irudi bat egitea, taldean, larruazal fototipo desberdineko umeen irudiekin, larruazala zaintzeko oinarritzko higiene arauak adierazita.

Baliabideak: kartoi meheak (larruazal fototipoen kolorekoak), paper jarraitua, arkatzak, koloreak, errotuladoreak, temperak...

Jarduera familiarekin

→ ZUHAITZ GENEALOGIKOA- FOTOTIPOA

Jardueraren deskribapena:

Zuhaitz genealogiko bat egingo da, familiaren laguntzaz, emandako txantiloitik abiatuta, argazki indibidualak erabilita. Gero, ikasgelan erakutsiko da, ahal izanez gero senideren baten laguntzaz, eta zuhaitzean agertzen den pertsona bakoitzak zer fototipo duen adieraziko dute ikasleek.

Jarduera ingurunearekin

→ KANPAINAREN ZABALKUNDEA

Jardueraren deskribapena:

Eskolako aldzkari, egunkari edo blogean, 8. jarduerari buruzko artikulu bat argitaratu (dermatologoari bisita). *Role-play* jolasean ari diren ikasleen argazkiak sartu.

Kanpainaren zabalkundearekin jarraitu, 1. unitatean aipatutako lekuetan, informazio kartelak banatz. Jadanik bisita ikasleekin egin bada eta gauza bera errepikatu nahi ez bada, harremanetarako beste bide batzuk bila daitezke: adibidez, erakunde horietako arduradunen bat etortzea eskolara, gai berriari buruzko informazioa jasotzen.

Baliabideak: kanpainaren informazio kartelak eta eskolako aldzkaria, egunkaria edo web orria.


Idea osagarriak

- Dermatologo bat etortzea ikasgelara (ahal bada, familiak ere bai), larruazalaren zainketari buruzko azalpenak ematera: eguzkiaren eragina larruazalean, alerta zeinuak, orezta eta orban motak... eta bereziki, orbanak aztertzeko arauak (asimetria, ertza, kolorea, diametroa eta eboluzioa).
